

õABOKATU EUSKALDUNAKõ BATZORDEKO 2013.
URTEKO TXOSTENA

2013. urtean zehar hauexek izan dira ekimen azpimagarrienak:

- 2013ko maiatzaren 9an afari ó kolokio bat izan genuen. Gonbidatua Iñigo Lamarka izan zen. Giza eskubideen gaur eguneko erronka nagusiei buruz aritu zen eta oso arrakastasua suertatu zen.

- Irailaren 13an euskara sustatzeko õAuzia Euskarazõ egitasmoa aurkeztu zen hitzaldi baten bitartez Bizkaiko Abokatuen Bazkunean zeinak geure Batzordeak koordinatu eta antolatu zuen.

- õAuzia Euskarazõ proiektua zabaldu da abokatu guztien artean. Horretarako hainbat bilera burutu ziren Bizkaiko Auzitegi-jauregi guztietan abokatuei azalduz nondik nora doan ekimen hori. Bilerak azaro eta abenduan zehar burutu ziren. Gernikan azaroaren 15ean, Durangon azaroaren 22an, Bilbon azaroaren 29an, Barakaldon abenduaren 13an, Getxon abenduaren 20ean eta Balmasedan urtarrilaren 10ean. Bilera guztietan õAbokatu Euskaldunenõ kideok parte hartu genuen.

- Kezka haundiz jarraitzen ditugu prozedura judizial desberdinetan ematen diren zailtasunak euskara erabiltzen den bakoitzean, Justizia Administrazioaren funtzionamendua ez baita bat ere egokia euskararekiko.

Eranskina.- AUZIA EUSKARAZ:

174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, EAeko Justizia Administrazioako Hizkuntza-Normalkuntzari buruzkoa.

Helburua: Justizia Administrazioarekin harremanetan dagoen edozein herritarrek **euskaraz nahiz gazteleraz egiteko aukera** izatea.

Dekretuak **euskararen erabilera sustatu nahi du** eremu judizialean, eta horretarako ondorengo **neurriak** aipatzen dira:

- É Lanpostu jakin batzuk lanpostu berezi gisa sailkatzea.
- É Unitateak elebidun gisa katalogatzea
- É Euskararen trebatzeko ikastaroen eskaintza arautzea
- É Euskara erabiltzeko programak arautzea
- É Lantalde elebidunak funtzionalki eratzea

Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra.

Helburu estrategikoetako bat: "Abokatuak sentsibilizatzea eta gaitzea"

Auzia euskaraz proiektuaren egituraren ardatzetako bat:

Erakunde arteko Batzordea non abokatuak ere parte hartuko duten.

BALIABIDE ABOKATUENTZAT:

- abokatuak demandak aurkezteko aplikazio informatikoak.
- Abokatuentzat e-Toolbar instalatzea; euskaraz lan egiteko laguntza tresna: itzulpenak, formularioak, lege testuak eguneratuta jasotzea, besteak beste.

Hauetz gain:

Dokumentu elebidunak: lehen aldiz epaitegietan eredu elebidun gehiago gaztelaniaz baino. 3.000.000 eredu euskaraz ere.

Komunikazioaren garrantzitasuna web orrian: ðAuzia Euskarazö bloga, Twitter kontua eta abar.